

Hitzontzi

Balaklava

FELIPE JUARISTI



Luis Alonso

Udazken hasiera zen eta euria ari zuen arratsalde hartan. Malekoian zehar paseatu ezinik, Benito Corcuera irakaslea eta Mateo Garralda musikaria zinemara joan ziren, *Brigada Arinaren Erasoa* jartzen baitzuten herrian, Errol Flynn eta Olivia de Havilland aktore-aktoresek jokatzeko duten pelikula. Egun hartan eta bere ohituraren aurka Benito Corcuera ordaindu zuen.

Irtendakoan ateri zegoen eta pixka bat ibili ziren malekoian zehar, harik eta nekatuxe Marina kafetegian eseri ziren arte, barneko aldean. Astegun buruzuria izanagatik, oso jende gutxi zebilen tabernan, eta oso jende gutxi zebilelako Humberto barmanak Duke Ellingtonen musika jarri zuen, bai baitzekien Benitok eta Mateok, biek ala biek, oso gustukoa zutela. Kafe bana eskatu zuten, apartsua, frantsesen erara.

—Zer iruditu zaizu filma? —galdegin zion Mateo Garraldak musikariak Benito Corcuera irakasleari.

—*C'est magnifique, mais ce n'est pas la guerre* —erantzun zion Benitok frantsesez.

—Jakina —erantzun zion Mateok—, filma bat besterik ez da.

—Ez naiz filmaz ari, Balaklavako guduaz baizik.

—Jakina, gudua besterik ez da.

Isilunea egin zen. Benito Corcuera zurrutaka edan zuen kafea eta begiak malekoira eraman zituen. Iluntzen ari zuen eta bikote gutxi batzuk zebiltzan paseeran, eskuak eskuari emanak, edo eskua gerriari.

—Zinemak dena edertzen badu ere, oso gudu itsusia izan zen Balaklavakoa. Erokeria hutsa —esan zuen Benito Corcuera, eta hitzak ahoskatzuten zituen doinugatik, Mateo Garraldak jakin zuen berehala ez zela hor, iritzi soilean, geratuko haren hitzaldia.

—Oso heroikoa izango da seihun eta zazpi zaldun dotore errusiarren kanoikaden artean erasoan joatea, oso heroikoa, bai, eta heroi gisa hartu zuten lord Cardigan husarren burua. Izan ere, alde gutxi dago, hitzetan ere, heroi izan ala ero izan. Alde gutxi, seihun horietatik berrogei ere ez baitziren bizirik atera.

—Halakoxea da gerlariaren bizitza —erantzun zion Mateo Garraldak—. Heroiak dira bizirik ateratzen direnak, eroak hiltzen direnak.

—Edo alderantziz —segitu zuen Benito Corcuera—. Eroak dira bizirik ateratzen direnak eta heroiak hiltzen direnak.

—Segun nondik begiratzen den ezta? —galdegin zion Mateo Garraldak, kafea edan ondoren. Eskuko hatzez belarriz entzuten ari zen musikari laguntzen ari zitzaion.

—Lord Raglan, Brigada Arinaren burua, beste garaiko gizona zen. Napoleonen aurka borrokatu zen Waterloon, eskuin besoa galtzeraino borrokatu ere, eta ez zen konturatu zaldunak ez zuela

zer eginik kanoien aurka —esan zuen Benitok jakitun, ez alferrik Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea zen.

—Hala ere —erantzun zion Mateo Garraldak—, Bigarren Mundu Gerraren hasieran Poloniako husarrek eraso egin zieten tanke alemanei.

Benito Corcuera ez zion berehalakoan erantzun. Burua galdu zuen une batez, Duke Ellingtonen musikak lagundurik.

—Lehenago, gure gerra zibilean, batekoak eta bestekoak zaldi gainean ibili ziren elkarri erasoka. Baina sonatuena Amadeo Lantza izeneko soldaduen erasoak izan ziren.

—Amadeo Lantza? Nondarra zen? —galdegin zion Mateo Garraldak, ez ordea harriturik, susmatzen baitzuen ez ote zen asmakizun hutsa.

Benito Corcuera irribarre egin zuen, eskuin eskua altxatu zuen Humberto zegoen aldera. Barmana arin etorri zen Mateo eta Amadeo zeuden mahaira.

—Bi *armagnac*, mesedez —eskatu zuen Benitok, eta Mateori begira gaineratu—. Zure kontura, noski.

Mateo Garraldak buruaz baietz esan zuen. Humberto barrara joan zen, bi kopa gerri-zabal *armagnacez* bete eta bi lagun mahaiaren gainean utzi zituen. Benitok kopa eskuan hartu eta sudurrera ekarri zuen.

—Zoragarria *armagnac* hau —esan eta edaten hasi zen—. Frantses hauek!

—Ez al didazu kontatu behar Amadeo Lantzaren historia? —galdegin zion Mateo Garraldak, irribarrez, jakinik, beste askotan bezala Benitok esango zuena gezurra izango zela gehiago, egia baino.

—Amadeo Lantza ez zen haren benetako izena, Peter Lightmann, baizik. Ingelesa zen eta Nazioarteko Brigadekin etorri zen Francoren aurka borrokatzera. Haren aitona John Lightmann, jakin izan dudanez, Dragoiekin izan zen Balaklavan, eta bizirik ateratzea lortu bazuen ere, herren geratu zen bizitza osorako, kosako baten lantza-kolpea medio.

—Beraz, Balaklava eta gure gerra loturik dau-
de nonbait —baieztatu zuen mateok, galdegin bai-
noago.

—Peter Lightmannekin. Guadalajaran beste
berrogei lagunekin batera tanke italiarrei eraso
egin zieten, eta gehienak bizirik atera ziren.

—Heroia zen beraz —esan zuen Mateo Garral-
dak burla haizez.

—Eroa zela esango nuke —erantzun zuen Be-
nito Corcuerak—. Brigadistek Espainiako lurra
utzi zutenean, Peter Lightmann ez zen haiekin.
Gerran segitu zuen, bere zaldi eta guzti, aitona-
ren modura. Gerran irabazi zuen Amadeo Lant-
za izena.

—Eta gero? —galdegin zuen jakin-minez Ma-
teo Garraldak.

—Gero, galdu egin zen.

—Galdu egin zela diozu?

—Hala ere susmoa dut gure herrira etorri zela
hiltzera.

—Gure herrira? Zarautzera? —galdegin zuen
Mateok gero eta jakin-min handiagoz.

—Aste honetan —esan zuen Benitok— udal ar-
txiboan zoko miratzen ari nintzela, Balaklava hi-
tza topatu dut, Elkano auzoko baserri bat izen-

datzeko. Eta badakizu nor izan zen gerra ondo-
ren baserriari izena eman ziona, udal artxiboko
paperaren arabera?

Musika ere isildu egin zen une horretan. Hum-
bertok, Duke Ellingtonenaz asperturik, nonbait,
Sara Vaughmannen kanta bat jarri zuen.

—Amadeo Lantza, hain zuzen —esan zuen Be-
nito Corcuerak eta geratzen zitzaion *armagnaca*
edan zuen, zurrutada batez—. Goazen haizea har-
tzera.

Mateo Garraldak ere edan samarturik zuen
bere kopa. Barrara hurbildu eta ordainketa egin
zuen. Kalera atera ziren, malekoira. Haize firfira
zebilen, olatuak harrotzeko adina ez, ordea.

—Dena dela —esan zuen Mateo Garraldak, ha-
rra nonbait barnean— izan daiteke udal idazka-
riaren hutsa, euskaraz ez jakiteagatik. Ez zen le-
hen aldia izango.

Benito eta Amadeo gelditu egin ziren.

—Eta zein izan daiteke Balaklava hori euska-
raz? —galdegin zuen Benitok.

—*Balearenlekua*, agian —erantzun zion Ma-
teok.

Benito Corcuerak ez zuen ezer esan. Aurrera
segitu zuten isilik, haizea lagun eta hizlari zutela.



Luis Alonso